

OHORE ETA AIPAMENEI BURUZKO ARAUDIA

Zioen adierazpena

Zarauzko Udalak, ohore eta aipamenak arautu nahian, horien bidez gure Elkarteari eta bereziki Zarautzi eskainitako zerbitzuak aitortu eta horiengatik esker ona adierazteko helburupean, Ohore eta Aipamenei buruzko Araudi hau onestu du.

1. artikulua

Zarauzko Udalak emango dituen aipamenak honako hauek dira:

- A) ZARAUZKO HERRIAREN DOMINA.
- B) KULTUR MEREZIMENDUAREN DOMINA.
- C) ARTE MEREZIMENDUAREN DOMINA.
- D) TURISMO MEREZIMENDUAREN DOMINA.
- E) KIROL MEREZIMENDUAREN DOMINA.
- F) ZERBITZU BEREZIEN DOMINA.
- G) URREZKO INTSIGNIA.
- H) ZARAUZKO SEME/ ALABA KUTTUNA.
- I) ZARAUZKO LAGUN KUTTUNA.

2. artikulua

Edozein herri administraziotan kargurik duten pertsonak ezingo dute hauetako aipamenik jaso, lotura horrek dirauen bitartean.

Atzerritarrei emateko, derrigorrezkoa izango da Kanpo Ministeritzaren txostena.

3. artikulua

ZARAUZKO HERRIAREN DOMINA ohorezko aipamena da, gizartearen edota Zarautzen onerako eragina duten ekintza berezien bidez lortutako merezimendurik nabarmenenak saritzeko.

Zarauzko dominak urrezko kategoria izango du eta pertsoneri edo edozein mailatako gizarte-erakundeei eman ahal izango zaie.

Dominaren aurreko aldean, erdian, Zarauzko Herriaren harmarria azalduko da -gaztelua, lehoia, balea eta itsasoa- eta horren inguruan ZARAUZKO HERRIA hitzak.

Atzeko aldean, OHOREA-MERITOA leienda, domina jasoko duen pertsonaren edo erakundearen izena eta data grabatuko dira.

Dominak 44 m/m.ko diametroa izango du, eta 3 m/m.ko lodiera.

Urrezko kategorian gehienera 25 domina eman ahal izango dira, eta ez da besterik emango horietako domina dutenatariko baten baja gertatzen ez den bitartean. Halaber, urtean bat baino ez da emango. Ezinbesteko kasuetan eta udal osoko bilkurak hala erabakita, finkatutakoak baino domina gehiago eman ahal izango dira.

Zarauzko dominaz ohoretuak izan diren pertsonen norbere ordezkaritza izango dute, berezko eskubidez eta lehenespenezko lekuan, ekitaldi ofizialetan eta udalak antolatzen dituen guztietan.

Dominaren bat ematerakoan, kontsezioaren akordioari dagokion egiaztatzea ere eman beharko da.

4. artikulua

Merezimenduaren domina guztiek zilarrezko kategoria izango dute, eta berdinak izango dira. Aurreko aldetik Zarauzko Herriaren Domina bezalakoa izango da, desberdintasun bakarra atzeko aldeko leienda izanik.

Atzeko aldean, dagokion leienda, domina jasoko duen pertsonaren edo erakundearen izena eta data grabatuko dira.

Dominak 44 m/m.ko diametroa izango du, eta 3 m/m.ko lodiera.

5. artikulua

KULTUR MEREZIMENDUaren domina, kultur arloan egindako aparteko zerbitzuengatik merezi duten pertsona edo erakundeentzat izango da.

Udal Osoak kasu benetan apartekotzat hartzen dituenak salbu, urtero domina bat baino ez da emango.

Dominaren atzeko aldean KULTUR MEREZIMENDUA leienda irakurriko da.

6. artikulua

ARTE MEREZIMENDUaren domina, artearen edozein arlotan nabarmendu diren pertsona edo erakundeentzat izango da.

Udal Osoak kasu benetan apartekotzat hartzen dituenak salbu, urtero domina bat baino ez da emango.

Dominaren atzeko aldean ARTE MEREZIMENDUA leienda irakurriko da.

7. artikulua

TURISMO MEREZIMENDUaren domina, herriaren garapen turistikoan lan egiten duten eta herria zabaldu eta sustatzen laguntzen duten pertsona edo erakundeei emango zaie.

Udal Osoak kasu benetan apartekotzat hartzen dituenak salbu, urtero domina bat baino ez da emango.

Dominaren atzeko aldean TURISMO MEREZIMENDUA leienda irakurriko da.

8. artikulua

Kirola banaka edo taldeka egin daitekeela kontutan hartuz, pertsona zein taldeei emateko KIROL MEREZIMENDUaren domina eta plaka eratzten dira.

Udal Osoak kasu benetan apartekotzat hartzen dituenak salbu, urtero domina bat baino ez da emango.

Dominaren atzeko aldean KIROL MEREZIMENDUA leienda irakurriko da.

Plakari dagokionean, urtero bat eman ahal izango zaie kirolaren edo heziketa fisikoaren zabalkundean gehien nabarmendu diren erakundeei, eta zilarrezko kategoria izango du.

9. artikulua

ZERBITZU BEREZIEK domina gure herriaren alde ekintza desberdinak egitean nabarmendu diren pertsona edo erakundeei emango zaie.

Udal Osoak kasu benetan apartekotzat hartzen dituenak salbu, urtero domina bat baino ez da emango.

Dominaren atzeko aldean ZERBITZU BEREZIAK leienda irakurriko da.

10. artikulua

URREZKO INTSIGNIA udalkideei emango zaie, karguaren jabe egiten direnean.

11. artikulua

ZARAUZKO SEME/ALABA KUTTUNAREN izendapena, gure herriaren alde, aparteko merezimenduengatik nabarmendu diren herriko ongileei emango zaie. Izendapen hauek pergamino artistiko baten bidez jasoaraziko dira. Bertan, akordioaren data eta izendapena eragin duten arrazoiak labur bilduz adieraziko dira, eta idazkariaren eta alkatearen sinadurak eraman beharko dituzte.

Izendapen hauetakoren bat emateko beharrezkoa izango da, justizia kolektiboak agintzen dituen aparteko zirkunstantziak biltzea. Izendapen hau duen orok udalkideen abantaila eta pribilegio berdinak izango ditu.

12. artikulua

ZARAUZKO LAGUN KUTTUNAREN izendapena zilarrezko plaka bat izango da. Horretarako, aldez aurretik proposamena aurkeztu beharko da, behar bezala arrazoituta, eta Udalbatzaren idazkari nagusiak txostena egin ondoren, udal osoko bilkurak akordioa hartu beharko du. Aipamen hau, herriaren aldeko merezimenduengatik sarigarri diren pertsona edo erakundeei emango zaie.

13. artikulua

Araudi honek arautzen dituen aipamenetako edozein emateko, espediente bat tramitatu beharko da eta bertan, emateko arrazoiak justifikatuko dira. Honetarako legalki eratuak dauden herriko elkarte guztiei eta baita zarauztar orori ere, egokiak irizten dituzten kandidaturak aurkezteko gonbidapena egingo zaie.

Zarauztar ororentzat kandidaturak aurkezteko gonbidapena herriko komunikabideen bidez egingo da. Dagokion aipamenaren sarigarri bihurtzen duten ekintzen frogak ere aurkeztu beharko dituzte espedientean. Helburu honetarako sortuko den Aipamenetarako Batzorde Bereziak hala proposatuta, dagokion batzorde informatzaileak tramitatu beharko du espedientea.

Informazio guztia jaso eta gero, Udalbatzaren idazkari nagusiak irizpidea emango du, hala badagokio, aldeko txostenaz, eta Udal Osoko Bilkurari aurkeztuko dio, hark bidezkotzat jotzen duen akordioa har dezan.

14. artikulua

Alkateari dagokio ohoretuari aipamenaren saria ematea, udal osoko bilkura batean. Ekitaldian, hartutako akordioa irakurriko da eta omenduari saria emango zaio.

15. artikulua

Ohore guzti hauek ez dute berarekin inolako dirulaguntzarik eramango.

16. artikulua

Zarauzko Udalak, Idazkaritza Nagusiaren bidez, emandako ohore eta aipamenen erregistroa eramango du (izenak, noiz emanak, egindako aipamena...).

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi hau, hasierako izaeraz, 1994ko ekainaren 16an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 1994ko ekainaren 20a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Araudi hau behin-betiko onestuta geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1994ko irailaren 14an (zk. 174) argitaratu zela.

Zarautz, 1994ko irailaren 20a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi honen testu aldatua, hasierako izaeraz, 1996ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 1996ko martxoaren 30a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Araudi honen testu aldatua behin-betiko onestuta geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1996ko ekainaren 25ean (zk. 122) argitaratu zela.

Zarautz, 1996ko ekainaren 30a
Idazkaria